

IZENA: DATA:

ITSASOA ETXE BARRUAN

Jorgek uste zuen bere etxeko sukaldea itsasoa zela. Sukaldeko horma zuria eta urdina zen: urdina erdiraino eta zuria hortik sabairaino. Horregatik sartzen zen beti Jorge sukaldera gosaltzera urpeko betaurreko eta guzti.

Sinesten zuen, etxeko sukaldea ozeano bat zela, bere ur gazi, bere irla eta bere itsasontzi piratekin.



-Itsasora noa – esaten zion bere aitari - eta orduan denek zekiten Jorge sukaldera zihoala. Sukaldea zen beretzat itsasoa. Jorgek zapatak kendu eta urpeko betaurrekoak janzten zituen itsasoan murgiltzeko. Hantxe ibiltzen zen zabuka, busti gabe, bere itsaso partikularrean. Sukaldeko horma urdinean arrainak margotzen zituen errotulagailuz. Eta udan hondartzan aurkitutako itsas-karakolak eta itsas-izarrak sukaldeko zoruan uzten zituen. Sukaldeko zorua zelako beretzat itsasoko hondorik hondoena. Eta itsasoko hondorik hondoenean egoten dira itsas-karakolak eta itsas-izarrak.

Harkaitz Cano – Mikel Valverde
Baigorri

1. Zertarako janzten zituen Jorgek betaurrekoak sukaldean sartzean?

- A. Gosaltzeko.
- B. Hobeto ikusteko.
- C. Igeriketa antzezteko.
- D. Pirata zela irudikatzeko.

2. Non zegoen Jorgeren “itsaso partikularra”?

- A. Ozeanoan.
- B. Sukaldean.
- C. Komunean.
- D. Hondartzan.

3. Zer margotzen zuen Jorgek sukaldeko horman?

- A. Arrainak.
- B. Karakolak.
- C. Itsasontziak.
- D. Izar urdinak.

4. Hurrengo esaldietatik zein da egiazkoa?

- A. Sukaldean ur gazia zegoen.
- B. Jorgek zoruan itsas-izarrak marrazten zituen.
- C. Jorgek itsas-izarrak hondartzan hartzen zituen.
- D. Horma goitik behera urdina zen.

5. Hurrengo esaldietatik zein ez da egia?

- A. Jorgek sukaldeko horma urdinean arrainak margozen zituen.
- B. Jorgek bainujantzia janzen zuen sukaldean sartzean.
- C. Jorgek udan itsas-izarrak eta itsas-karakolak hondartzan hartzen zituen.
- D. Sukaldeko horma bi koloretakoa zen.

6. Zenbat urte dituela Jorgek uste duzu?

- A. 15
- B. 40
- C. 1
- D. 3